

## **BI MILA ETA HAMABOSTEKO MAIATZAREN HOGEITA BEDERATZIAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA.**

Arrietan 2015eko maiatzaren hogeita bederatzian, 13:00etan Udalaren Osoko Bilkura osatu da udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M<sup>a</sup> Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri  
Aitziber Ibinarriaga Delgado  
Jose Jesus Iturbe Oñartetxebarria  
Eduardo Saez Rementeria  
Lorenzo Ortiz Guerra

Beñat Barainka Enzunzak aurretiaz azaldu du bertaratu ezina.

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

### **I.- BI MILA ETA HAMABOSTEKO APIRILAREN HOGEITA ZORTZIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.**

2015eko apirilaren hogeita zortziko bilkuraren Aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

### **II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da edukia:

#### **Andoni Vecchio Garciak bermea itzultzeko aurkeztutako eskaera.**

Oxiñaga auzoko baserriaren konponketa lanak amaitutzat jo dira eta bermea itzultzea erabaki da.

#### **Jesus Asla Muruagak hilerriko lursaila alokatzeko aurkeztutako eskaera.**

Hilerriko ezkeraldeko 44 zenbakidun lursaila alokatu zaio Jesus Asla Muruagari Luis Asla Altonaga bertan ehorzteko.

#### **Zerbitzu Anitzetako langilearen ordezkapena egiteko aldi baterako kontratua.**

Pedro Maria Zugazaga Uribarri kontratatu da zerbitzu anitzetako langilearen ordezkapena egiteko oporraldian.

#### **Andoni Orbe Gilek bermea itzultzeko aurkeztutako eskaera.**

Olatxu auzoko baserriaren konponketa lanak amaitutzat jo dira eta bermea itzultzea erabaki da.

#### **Udal erroldan baja emateko espedientearen hasiera.**

Domingo Fernando Dias, Enrique Manjon Cabañeros, Victoria Jayne Moule, Ignacio Martinez Bemposta, Sebastian Robert Martinez Moule eta Beatriz Martinez Moulerekin erreferentzia izen emategatik udal erroldatik baja emateko espedientea.

### **Ondare ondasunen Erregistroa.**

Ondareen gaineko eskubide eta adierazpenen interes erregistroak sortu dira.

### **III.-2014KO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.**

2015eko maiatzaren 5eko 83 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2014ko Aurrekontuaren Kontu Orokorraren hasierako onarpenaren iragarkia argitaratu ostean, alegaziorik aurkeztu barik, Udalbatzak, Alkate jaunaren, Aitzbea Yarto Goiri, Aitziber Ibinarriaga Delgado eta Jose Jesus Iturbe Oñartetxebarriaren aldeko botoekin eta Eduardo Saez Rementeria eta Lorenzo Ortiz Gerraren abstentzioekin, 2014ko Kontu Orokorra onartu du.

### **IV.- AHO BATEZ ONARTUTAKO FAKTURAK.**

-Gizarte zerbitzuen mankomunitatea, Etxeetarako laguntza, 2015eko 1.go hiruilekoa eta bestelakoak.....3.704,25  
-Anulaciones septicas Mungia, Gerekako putzu septikoaren garbiketa.....1.377,75  
-Jata Ondo, Landa Garapeneko Elkarte, 2015eko turismo kuota.....1.234,00  
-Jata Ondo, Landa Garapeneko Elkarte, 2015eko kuota.....1.234,00

### **V.- NORBERAK LEKARKEENA.**

Ez dago galderarik.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura ordu bata eta erdietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko